

## **FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Proiektua aurrera eraman ahal izateko finantzaketa beharrezkoa da. Izan ere, dirua behar dugu hornitzaileei ordaintzeko (musukoengatik zein edukiontzienengatik) eta zerbitzuari buruzko publizitatea egin ahal izateko.

Horretaz gain, baliabide mota desberdinak beharko genituzke:

1. **Baliabide fisikoak:** materialak gordetzeko biltegia beharko genuke (ordezko musukoak eta edukiontziak gordetzeko). Bestalde, publizitatea egiteko panfletoak egin ahal izateko ordenagailu bat izatea beharrezkoa izango litzateke.
2. **Giza baliabideak:** giza baliabideei dagokienez, panfletoak herritarrei banatzeko pertsonak beharko genituzke. Bestela, pertsonak kontratatu ordez, guk geuk banatuko genituzke panfletoak eta sarean eskegiko genuke informazioa.
3. **Finantza-baliabideak:** finantzaketa lortzeko modu desberdinak ditugu: alde batetik, geure aurrezkiak erabili ditzakegu hasierako kostuak ordaintzeko. Bestalde, udaletxearen eta Eusko-Jaurlaritzaren diru-laguntzak jasotzeko aukera kontuan hartu ahalko genuke. (Beranduago, edukiontzien onarpena jasoko balute eta proiektua nazioartera zabalduko balitz, Espainiako Gobernuaren diru-laguntzak eta Europar Batasunekoak jaso genituzke).

